

# hondo-hondotik

Juan Javier Iturralde

(Aralar-eko kidea)

## Ezker abertzalea, noruntz? Aralar, noruntz?

**B**i urte hauetan Ezker Abertzalearen baitan aldaketa sakonak izan dira, eta, hala eta guztiz ere, oso egoera arriskutsuan aurkitzen da. Atzera begiratzen badugu, erakunde militarren su-etenaren haustura alde batera utzita, halako gertaerekin aurkituko gara: Espainiako hauteskundeetara ez aurkeztea, Gasteizko Legebiltzarretik ateratzea, Subironatasunerako proposamen ezegokia, 2001eko Apirilako Greba deialdia eta bere porrota ez aitortzea..., Ezker Abertzalearen zuzendaritza abia da handiz ari zen, besteak beste, EAJren jarrera baldintza zezakeelakoan espainiar Estatuaren erasoaldiaren aurrean, eta, beraz, Ezker Abertzalearekin marko berri baterako hitzarmenera behartuko zuelakoan.

Ibarretxeren erabakiak Legebiltzarreko hauteskundeak aurreratzeko eta Espainolismoaren garaipenaren beldurak, su-etenaren haustura eta Ezker Abertzalearen jarrera erradikalegiaren ondorioekin batera, agerian utzi zuten orduko jarrera eta analisisen okerra, maiatzaren 13ko gauean Ezker Abertzaleko 80.000 hauteslek baino gehiagok bizkarra eman baitzioten.

### Aralar Ildoaren sorrera

Horrekin batera ailegatu zen Batasuna prozesuaren amaiera, zeinean ez ziren onartu ildo politiko ofizialaren aldaketak eta zeinak ez zituen bete hasierako helburuak: sektore zabal eta berrietara ailegatzea. Horren ondoren, hasieran Ezker Abertzalearen ildo ideologiko gisa sortu zen Aralar Ildoa; beranduago, hauteskundearen usainean, Asoziazio Politikogisa legeztatu zena, ez zen sartu Batasuna erakunde berrian, hilabete batzuk beranduago Alderdi Politikoa bihurtu zelarik. Aurretik, eta geroztik ere, oso egoera eta jarrera zailak bizi dira Ezker Abertzaleko zuzendaritza ofizialaren eta kritikoen artean, beti borroka moldeei buruz ikuspegi ezberdinak zirela eta, eta Gasteizko Legebiltzarreko parte-hartzea zela eta.

Hala ere, eta erakunde armatuaren ekintza bortitzen eta Estatuaren zapalke-ta gogorren artean aukera gutxi badaude ere, ezin da ukatu Ezker Abertzale ofizialaren baitan autokritika bat izan dela, eta zuzenketa batzuk egin direla, nahiz eta publikoki ez agertu batzuek nahi luketen

bezain garbi, baina ez zegoen labea opil horretarako une latz hauetan ziurrenik. Hala, orduko Aralar Ildoak, maiatzeko hauteskundearen aurrean jarri zituen bi baldintzak ez aurkezteko beteak daude une honetan: lehendakari espainolista bati bidea ixtea, zeinerako konpromisoa eman omen zuten bere garaian, eta Gasteizko Legebiltzarreko parte-hartze iraunkorra, zeina jadanik bete duten, hiritarren arazoak tratatzen diren foroetatik Ezker Abertzalea ezin daitekeela aparte mantendu onartuz. Kontuan hartzen badugu Ezker Abertzalerako Gasteizko Legebiltzarra tresna *particionista* soila izan dela urteetan, ez da aldaketa makala!

Beste alde batetik, barne funtzionamenduari dagokionez zenbait aldaketa izan dira: militante edo

afiliatuaren subjektua sortu da eta korronteen ezagutza lortu da, nahiz eta beren papera eta kokapena oso eskasa eta eztabaidagarria den. Garrantzitsuagoa dena zera da: Ezker Abertzale ofiziala, Batasuna, bide pragmatikogo batean hasi da, bai Gasteizko Legebiltzarreko parte-hartzeak adierazten duena, bai eta bere Bake proposamenaren ikus daitekeenez, zeina agente guztien arteko negoziatioaz eta Autodeterminazio eskubidearen inguruan kokatzen baita, Aralar Ildoak defendatzen zuen bezala, lehengo proposamen soberanista alboratuz. Egia da, halaber, Estrategia nazionala egiterakoan oraindik ere herrialdeen arteko egoera diferenteak ez direla sakonean kontuan hartzen, horra hor Iparralde eta Nafarroaren zauriak, eta ausardia faltatzen zaiola bere desakordioak agerian azaltzeko, Sinn Feinek noizean behin egin zuen moduan. Hala ere, aldaketa horretaz jabetzeko, nahikoa dugu joan den urteko egoera eta proposamenak eta oraingoak alderatzea. Bitartean ETak mantentzen du bere jarduna eta Estatuak jarraitzen du berean: Ekin, Haika, Segi, ABBak, Askatasuna erakundearen legez kanpo uztea, bide poliziala, sarekadak, tortura eta dispersioaren bidegabekeriak, Batasuna legez kanpo

uzteko ekimena eta nazionalismo guztiaren aurkako gurutzada.

### Ezker Abertzalea gaur

Une honetan Ezker Abertzale ofiziala hiru suren artean harrapatuta dago: Estatuaren joko errepresiboa, EAJren ekimen eta ausardia falta herri honen arazotik errotik konpontzeko, bakarrik bere epe motzeko interesak defendatuz eta Ezker Abertzalearen larrean bazka atera nahiaz, eta borroka armatuaren irauteak sortzen dituen oztopo eta kontraesanak, horregatik meritu gehiago dago politika errealean murgiltzeko bere jarreraren, etsaiek nahiko luketen erradikalizazioan erori gabe, eta horregatik ulergaitzagoa egiten zait Ezker Abertzalearen esparrutik sorturiko beste erakundeek egiten du-

ten jokoa —azkenekoa Abertzaleen Batasunetik dator, Batasuna Aberri Eguna eta ondoko dokumentua prestatu eta eztabaidatzeko ez konbokatzean—. Bestalde, aipatu behar da ez dela normala Aralarren bozeramaile batzuen joera, Batasunarekin dauden ezberdintasun guz-

tiak markatuz, egiten diren zuzenketa gutxietsiz, eta giroa tenkatzen, bere garaian Abertzaleen Batasuna eta Batasunarekin preferentziako harremanak izatea onartu zenean, eta momentuko beroketak kenduta posible dena, ez bada desakordio guztiak sakontzera joaten. Adibidez, oraingo Batasunaren bake proposamena Autodeterminazio eskubidearen inguruan denean, jartzen da mahai gainean eskubide horren esparruak zein izan behar duen, oraindik ere horretarako bide asko dagoenean eta Aralar berak horretaz duen jarrera errespetatu gabe, beste argudioen babesean EAJK orain 23 urte egin zuen oker berbera errepikatuz, Nafarroaren afera nafarren eskutan utziz. Hori horrela esanda oso demokratikoa irudi dezake, baina Estatuak Nafarroan jokatzen dutena jokatuta eta oraindik botere ekonomiko eta politikoak hori onartzeko prest ez daudenean, inuxentekeria eta apaingarri dialektikoa besterik ez da. Ados nago Euskal Herri-rako edozein proiektu aurrera ateratzeko

bere herrialde bakoitzeko biztanleen gehiengoak behar dela.

Berdin gertatzen da su-etenaren eskakizunaren kasuan. Egia bada ere Ezker Abertzaleko gehiengoak uste duela borroka armatuaren garaia igarota dagoela —are gehiago azken urteetako dinamikan oinarritzen baldin bada— eta bere bukaera ahalik eta lasterren lortu behar dela, eztabaidagarria da hamaika gaitzespen eta hamaika eskakizun publiko soilekin lortuko den konbentzitzea, hori dela bide bakarra gure eskubideak eskuratzeko sinesten dutenak, ez bada zerbait egiten Estatuaren aldetik Euskal Herriaren eskubideak ezagutuak izan daitezkeen, edo bide horretarako erabakimen txikiena ez bada jartzen gaur egun borroka armatua errefusatzeko dugunon alde-tik. Egia da sentimendu hori, borroka armatua eta beste indarkeria guztiak bukatzearena, Ezker Abertzaleko gehiengo batena dela, eta, beraz, hori lortzeko su-tena egin beharrezko urratsa dela, baina hori eskatzea exigentzia mailan jartzen bada akordioak lortzeko edo Autodeterminazio aliantza batean parte hartzeko, ezintasuna edo aitzakia bilatzen ari dela ematen du. Bestalde, exigentzia maila berbera ere jarri behar litzaielike gurekin batera arazorik gabe onartzen ditugunei balizko *progresoko alternatiba* Nafarroan osatzeko edo laguntzeko (zeinetaz bakarrik komunikabideen bitartez tratatzen ari baita), ezker abertzale eta nazionalismoaren kontrako ituna apur dezaten, tortura, inkomunikazioa eta Auzitegi bereziak onartzen dituzten legeak desagertzeko, dispersioa bukatzeko eta Autodeterminazio eskubide demokratikoa onar dezaten.

Azkenik, gogoratu behar dut Aralar ildoan apuntatu zen lehen helburua Ezker Abertzalearen zuzendaritzaren okerrak salatzea eta ezker abertzalea berbidertzea zela, ez bestelako saiakeretan airtzea, eta hori dela Batasunaren barruan dauden milaka partaide eta ehunka alkatete eta zinegotzien asmoa ere. Askotan alderdien baseak eta herri xeheak beren dirigenteen jarrera maximalista edo pertsonalisten gainetik izaten dira, eta espero dezagun honetan ere hala izatea Ezker Abertzalearen erakundearen arteko ekinbide bateratua lortzeko eta ez daitezkeen elkarren kontra aritu.

### SU-ETENA

**Hori exijitzen bada Autodeterminaziorako aliantza batean parte hartzeko, aitzakia bilatzen ari dela ematen du**

## esaldiak

«Idazle kalezale eta jendezalea naiz; pentsatzen dut gizartea hankaz gora jarri behar dela, berak gu kolpatzen gaituen bezala»

**PAKO ARISTI**

(Idazlea)

«Zientzian eta teknologian inbertitzea da garapenaren lehengaia, baina epe luzera»

**PEDRO MIGUEL ETXENIKE**

(Fisikoa)

«Industria amerikarra izugarri arrunta da. *Fast food*-a da, erabili ondoren botatzeko zinema»

**DIEGO GALAN**

(Donostiako Zinemaldiko zuzendari ohia)

«Orain arte ahozotasuna lantzeari ez zaio garrantzirik eman, denbora galtzea zela pentsatuta, eta uste hori aldatu egin behar da»

**URI RUIZ BIKANDI**

(Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea)